

## II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **2024an Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apainketaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak emateko deialdia ebazteko erabakia**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran:

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, udalaren Merkataritza Zerbitzuko buruak 2024ko otsailaren 8ko idazki baten bidez proposatu zuen 2024an Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apainketaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzak emateko oinarriak eta deialdi publikoa onestea; deialdia konkurrentzia-prozeduraren bitartez tramitatu da, eta 208.800,00 euroko zuzkidura du, 2024ko udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 aurrekontu-partidaren kontura ("Merkataritza eta ostalaritzarako laguntzak").

Berriazko laguntza-deialdi hori Vitoria-Gasteizko Udalaren Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak 2024an udalerrian enpresa txikien lehiakortasuna hobetzeko eta, azken batean, jarduera ekonomikoa sustatzeko kudeatzen dituen programen barruan sartzen da.

2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apainketaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntzen deialdi publikoa eta berriazko oinarri arautzaileak 2024. urterako (2024ko apirilaren 19ko ALHAO, 45. zenbakia.).

Eskabideak aurkezteko epea bukatu zelarik, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten, 2024ko urriaren 9ko idazki baten bitartez, 3 eskabide epez kanpo jaso zirela eta 61 epe barruan; azken horietatik, 9k ez zituzten oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen.

Eskabide horiek aztertu ondoren, Balioespen Batzordeak analizatu eta balioetsi zituen, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran. 52 eskabidek deialdiko betekizunak betetzen zituztela egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi zirelarik, ebazpen-proposamena landu zen. Zehazki, 9 eskabide ezesteko proposatzen zen, betekizunak ez betetzeagatik; 3 eskabide ez onartzeko, epez kanpokoak izateagatik, eta 52 dirulaguntza emateko, guztira 74.294,13 euro, hartara deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortu gabe.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, dirulaguntzen plan estrategikoa gauzatzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan — 127. artikuluan 1.g) eta 2. apartatuetan eta Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta balioespen batzorde teknikoak egindako proposamena aintzat harturik, baita Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko eskumenak eskuordetzeko erabakia ere, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Ebazpen-proposamena

Lehena. Deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak ez dituztela betetzen egiaztatu ondoren, 2024an Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apainketaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoak emateko udal programan eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea honako hauei:

ZK.	IFZ	BETE GABEKO OINARRIA	UKATZEKO ARRAZIOA
1	72734251V	6.6	Diruz lagunduko ez den EJZ
2	B01304443	6.6	EJZn alta eman gabe
3	B01432251	6.6	Diruz lagunduko ez den EJZ
4	B56200603	6.8	Ez dauzka ordainduta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Arabako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak
5	18593336K	3	Inbertsio-alditik kanpoko fakturak
6	B01584499	10.3	Ez du nahitaezko dokumentazioa aurkeztu, ez eta banku-ordainketen frogagiririk ere
7	B95725685	6.6	Diruz lagunduko ez den EJZ
8	B01585462	3	Inbertsio-alditik kanpoko fakturak
9	72739155E	6.8	Ez ditu ordainduta Arabako Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak

Bigarrena. Deialdiko betekizunak betetzen direla egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsun-hurrenkera ezarri ondoren (12., 15. eta 16. oinarriak), 2024an Vitoria-Gasteizko udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta ile-apainketaren alorreko enpresa txikien eraldaketa digitalerako laguntza ekonomikoa ematea honako hauei, adierazitako zenbatekoetan:

ZK.	IFZ	LORTUTAKO PUNTUAZIOA GUZTIRA	DIRUZ LAGUNTZEKO ONARTUTAKO INBERTSIOA (BEZ GABE)	DIRULAGUNTZA %	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	B01507797	68	6.225,05	45,50%	2.832,40
2	B01461011	63	10.148,50	43,63%	4.427,79
3	B71337349	63	10.396,59	43,63%	4.536,03
4	72454092K	60	3.029,25	42,50%	1.287,43
5	44683180E	58	5.100,00	41,75%	2.129,25
6 *	B01553585	58	16.884,76	41,75%	5.000,00
7	J01470236	57	2.325,99	41,38%	962,49
8	71347702T	54	9.258,87	40,25%	3.726,70
9	72733791V	51	1.884,08	39,12%	737,05
10	11910382Q	51	3.237,01	39,13%	1.266,64
11	44674955P	50	7.422,59	38,75%	2.876,25
12	16218723C	46	1.188,80	37,25%	442,83
13	44685234Y	45	9.500,00	36,88%	3.503,60
14	B06770176	45	1.666,41	36,88%	614,57
15	J01315431	44	1.355,44	36,50%	494,74
16	B56774920	40	4.291,83	35,00%	1.502,14
17	B01231505	40	5.902,56	35,00%	2.065,90
18	Y4767682A	39	995	34,63%	344,57
19	B01045939	37	2.215,00	33,88%	750,44
20	B67847749	36	5.398,53	33,50%	1.808,51
21	J01526086	36	566,13	33,50%	189,65
22	B01323864	36	4.549,85	33,50%	1.524,20

ZK.	IFZ	LORTUTAKO PUNTUAZIOA GUZTIRA	DIRUZ LAGUNTZEKO ONARTUTAKO INBERTSIOA (BEZ GABE)	DIRULAGUNTZA %	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
23	B44996924	35	9.798,81	33,13%	3.246,35
24	B01130574	33	8.344,07	32,38%	2.701,81
25	B01311950	33	1.910,00	32,38%	618,46
26	45627045J	31	1.600,00	31,63%	506,08
27	B13852785	31	952	31,63%	301,12
28	16272680L	31	6.449,55	31,63%	2.039,99
29	72752030V	31	650	31,63%	205,6
30	X9727142M	31	743,8	31,63%	235,26
31	A01055052	30	1.208,93	31,25%	377,79
32	B01387885	29	9.200,00	30,88%	2.840,96
33	B56750714	28	1.250,00	30,50%	381,25
34	16299421B	28	536,38	30,50%	163,6
35	01628330E	28	1.239,67	30,50%	378,1
36	B01586122	26	9.186,50	29,75%	2.732,98
37	16258455P	26	2.890,00	29,75%	859,78
38	B01389378	22	3.960,00	28,25%	1.118,70
39	B01575851	22	1.600,00	28,25%	452
40	B01559152	21	646,9	27,88%	180,36
41	B01559152	21	1.244,66	27,88%	347,01
42	B01501881	21	4.950,00	27,88%	1.380,06
43	B01435221	20	1.400,00	27,50%	385
44	J01377936	19	3.300,00	27,13%	895,29
45	B01462233	19	3.300,04	27,13%	895,3
46	B01564467	19	765	27,13%	207,54
47	B01396571	18	2.605,00	26,75%	696,84
48	B01580158	18	2.428,00	26,75%	649,49
49	B01580158	18	3.600,00	26,75%	963
50	B01515071	17	1.850,00	26,38%	488,03
51	B01336536	16	18.000,00	26,00%	4.680,00
52	J01302082	16	1.320,00	26,00%	343,2
<b>GUZTIRA</b>			<b>220.471,55</b>		<b>74.294,13</b>

“\*” izartxoak duen dirulaguntzan, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez dator bat ezarritako dirulaguntzaren ehunekoarekin; izan ere, deialdiaren 16. oinarriaren arabera, “enpresa onuradun bakoitzari urtean gehienez emango zaion dirulaguntza 5.000,00 eurokoa izango da”

Onartutako eskabideak balioetsi eta lehenesteko, deialdiaren 12. oinarrian (“Emateko prozedura”) ezarritakoa hartu da kontuan: “Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak”

Deialdiaren 16. oinarrian (“Dirulaguntza kalkulatzeko”) adierazitakoaren arabera, diruz lagun daitezkeen proiektuak 15. oinarrian ezarritako irizpideen arabera balioetsi dira. Ondoren, dirulaguntzaren ehunekoak kalkulatu da, 16. oinarrian adierazitakoaren arabera: “Proiektu guztiak balioetsi ondoren, honela kalkulatu da dirulaguntzaren portzentajea: 80 puntu lortzen dutenek dirulaguntzaren gehieneko portzentajea lortu ahal izango dute (ehuneko 50). Aitzitik, guztira 0 puntu lortzen dutenek dirulaguntzaren gutxieneko portzentajea lortuko dute (ehuneko 20). Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoak kalkulatzeko, eta balioespenean lortutako puntu bakoitzeko ehuneko 0,375 osagarria gehituko da”

15. oinarrian adierazitako irizpideak aintzat harturik balioesten direlarik guztira lortzen dituzten puntuazioen arabera ordenatuko dira dirulaguntza jaso lezaketen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 15. oinarriko 1. apartatuan —eraldaketa digitalerako proiektuaren kalitatea— lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Hala ere berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

Enpresa onuradun eta urte bakoitzeko 5.000,00 euroko dirulaguntza emango da gehienez.

Hirugarrena. Honako interesdun hauek egindako eskabideak ez onartzea, epez kanpo aurkezteagatik:

ZK.	IFZ	ARRAZOIA
1	Y8276581E	Eskabidea epez kanpo aurkeztea
2	72826793F	Eskabidea epez kanpo aurkeztea
3	16294686Z	Eskabidea epez kanpo aurkeztea

Laugarrena. Laguntza horien zenbatekoa (74.294,13 euro) 2024ko udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura (“Merkataritza eta ostalaritzarako laguntzak”) jasota uztea (7. oinarria), eta horiek ordaintzea onestea.

Bosgarrena. Udalaren Merkataritza Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira eta, laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Zazpigarrena. Ebazpena udalaren weguneko Gardentasun Atarian eta ALHAOn argitaratzea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela errekurtsua Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoko arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Hori guztia, bidezko den beste edozein errekurtsu edo ekintza gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 13an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
**JOSEBA ANDONI GARCIA-ARDANAZ ARDANAZ**